

IL AZALPEN PROBA • <i>Zure arimaren truke</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Benetan ari al zara? —galdetu zuen Marenek. Gero eta harrituago zeuden.

—Jolas gisa heldu nahi diot, baina aldi berean kemenez —azaldu nien—. Ohiko bideak maiz igarota daude jada. Guztiok dakigu hori. Baina zuek ez zarete ohiko ikerlariak. Horregatik, beste zerbait probatu nahiko nuke. Minbizi sistema bat da. Bizi eta konplexua, baina azken batean fisikoa. Arau batzuen arabera garatzen da, eta matematikoki azter daitekeen eboluzioa izan behar du, derrigor. Horretan bagara adituak.

Behin baino gehiagotan sartu nituen lankide haiek zulo xebrereren batean, eta, ez gutxitan, irtenbide bat aurkitu izan genuen guztion artean, inork espero ez zuen moduren batez. Talde sinergikoa osatzen genuen erabat: alegia, elkarrekin gehiago lortzen genuen, gutako bakoitzak bakarka aritzean lortuko lukeena batuz baino. Guztiok ginen hartaz jakitun.

Hala eta guztiz ere, txantxetan ari nintzela pentsatzen zuten artean, haiek ur handiegiak zirela sinetsita baitzeuden garbiro.

—Ikerlari asko eta asko saiatu da borroka horretan —esan zidan Marenek, nire kontzientziako ahotsa balitz bezala.

IL AZALPEN PROBA • <i>Zure arimaren truke</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

ERRADIAZIO FISIKOA HASIERATIK baztertu genuen arren, orain, apurka, beste era bateko erradiaziora jotzen ari ginen: soinu-erradiaziora. Hitzera! Hitzak ahotsak sortzen baitu, eta ahotsa uhina da.

Hainbat psikologo, yogi eta mistikoren lanak aztertu genituen, era guztietako tekniken bila. Hipnosiak, sugestioak, errituak otoitzak... Haien guztien eragin-trukeak bilatzen saiatu ginen, haien guztien balizko enborra eta mamia. Fenomenoaren atzeko noumenoa, Kant filosofoaren hiztegia erabiliz. Pentsamendua noraino hel zitekeen jakin nahi nuen.

—Poetak eta idazleak ere aztertu ditut –jakinarazi zidan Marenek.

—Antzinakoak?

—Oraingoz, greziarrekin nabil. Tragiko nagusiak interesgarriak iruditu zaizkit: Eskilo, Sofokles, Euripides. Tira, baita Aristofanes komediagilea ere.

IL AZALPEN PROBA • <i>Zure arimaren truke</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Ondo? Ondo? Faborez! Nor engainatu nahi duzu? Estatistikak aurrez esaten zuen lekuan bertan nago. Erdi-erdian! Eta leku hori urkamendia da. Iragarritako amiltze baten kronika da, Bernat. Onar ezazu. Hori ezin da aldatu. Amorrutan egon nintzen. Borroka geraezinean aritzeko asmoa neukan... Baina oraintxe indarrrik gabe sentitzen naiz.

—Ez, Iruri. Ez. Ez zara eroriko. Hitzematen dizut.

—Hitzeman? Zuk ezin duzu ezer egin! Erortzen ari naiz, eta zu gero eta urrunago ikusten zaitut.

—Alboan naukazu.

—Alboan? Bai zera! Laborategia ez dago nire alboan. Eta han ematen dituzu egunak, eta hemen zaudela ere han daukazu burua. Zertarako? Zertarako, ene? Zerbait lortu al duzue? Ez, ez erantzun. Galdera erretorikoa zen.

—Lortuko dugu. Lortuko dugu! –tematu nintzen.

—Sei hilabetetan? Inork lortu ez duena?

—Lortuko dugu. Eta, gainera, ez dakizu zenbat hilabete izango diren. Sei? Zergatik ez hogeit? Edo ehun?

—Beti izan zara penagarria gezurak esaten.

—Ez da gezurra.

—Eta ez da egia. Zer da orduan? Absurdoa.

IL AZALPEN PROBA • <i>Zure arimaren truke</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Izaera aldatu zaik, eta uste diat heuk ere ez dakiala zenbateraino. Begirada galdua duk. Ikusi al duk hire aurpegia? Hildako bat ematen duk eta.

—Eskerrik asko.

—Zergatik ezin duk utzi ? Zer duk Iruri baino garrantzitsuagoa orain ? Oraintxe! Une honetan. Ezin haiz egun osoan laborategian egon.

—Zerbait lortu diat.

—Zer da zerbait? –jaurti zidan Kikek–. Eboluzioaren teoria berri bat topatu al duk? Edo sugestio psikologiko polit batzuk? Ez al haiz konturatzen heure burua engainatu nahian habilela? Beste egoera batean barre egingo nitek aurpegira. Ezin diat, ordea. Orain ezin diat.

—Ez didak sinetsi nahi. Benetan esan diat: aurrerapenak egiten ari nauk.

—Aurrerapenak? Nora hoa aurrerapen batzuekin? Iruriri gero eta gutxiago geratzen zaiok! Bi hilabete? Hilabete bakarra? Litekeena da hilabete bakar bat izatea! Entzun? Hilabete bat ! Izan hadi zentzuduna. Behingoz bada ere! Hilabete batean ez duk ezer berririk lortuko.

—Harritu egingo hintzateke. Garagardoa nahi duk?

—Zer?

—Garagardoa. Taberna batean gaudek. Zerbait hartzeko ohitura egoten duk horrelakoetan –esan nion, ironiaz blai.